

1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak

1.8.1. Erantzutegiaren egitura

Erantzunak inkesta lekuen arabera zerrendatuak dira, eta inkesta lekuak eurak, herrialdeka. Beti modu berean. Inkesta leku bat ez bada agertzen zerrendan, horrek esan nahi du galdera horretan erantzunik ez dela jaso herri horretan.

Herrialdeen ordena, bai eta haien barneko inkesta lekuen ere, mendebaldetik ekialdera doan segida bati jarraitzen zaizkio. Horrela, lehenik Bizkaiko herriak agertzen dira, eta haietan, lehenbizikorik, *Getxo, Leioa, Zollo...* Azkenik Zuberoako inkesta lekuak aurkitzen dira, ekialdean urrunenik daudenak agertzen direlarik bukaeran: *Ürrüstoi, Barkoxe, Eskiula*.

1.8.2. Erantzun motak

Bi erantzun mota aurki daitezke erantzundegian: **zuzeneko erantzunak** lehenik, eta **erantzun proposatuak** bestetik. Azken hauek, berri emaileak ez ditu berak eman lehen aldian, baina proposatu izan zaizkiolarik onartu ditu, eta herrikotzat jo. Erantzuna berri emaileak berak eman duen forman agertzen da.

Bigarren mota horretako erantzunak letra etzanaz eta aurrean izarñoa dutela agertzen dira erantzundegietan. Adibidez, 20010 galderan, Bermeon, bi erantzun jaso dira: [šášítóki] eta [*šašítse]. Lehena zuzeneko erantzuna da, eta bigarrena, aldiz, erantzun proposatua.

1.8.3. Erantzunen forma

Erantzunak ortografia fonetikoan agertzen dira (ikus taula fonetikoa XXIII. orrialdean) eta ahalaz hizka emanak dira; esapide berezietan ez bada, ez da esaldirik agertzen erantzunen zerrendetan.

Hitzak beren osoan utzi dira aldakuntzarik egin gabe. Hitza mugagabeen bildu denean, forma hari eman zaio lehentasuna erantzundegian; bestela, hitza bere hartan utzi da, artikularekin edo kasu marka batekin agertzen zelarik, adibidez. Horrelakoetan forma markatua zela adierazteko, eta ez lexema hutsa, (*mark.*) erantsi da parentesien artean erantzunaren gibelean. Ikur bera erabili da aditzekin, partizipio buruaren forma bildu ez denean. Adibidez, 20010 galderan, Urdiain herrian, [šášijá] (*mark.*) erantzuna agertzen da, artikulurik gabeko forma ezin bildu ahal izan delako.

Erantzun gisa jaso dira azentuaz kanpo zerbait aldakuntza zuten forma guztiak. Adibidez, berri emaileak bi erantzun eman dituelarik, forma batean sabaikari bat sartuz, eta bestean ez, bi erantzunak bildu dira.

Kontuan har bedi, forma batek, markatua izan edo ez, testuinguruaren arabera itxura desberdinak izan ditzakeela. Adibidez, lexema bateko hastapeneko leherkari ahostuna frikari bihur daiteke bokal baten ondotik, edo hastapeneko herskari ahostuna ahoskabe bihur daiteke herskari edo frikari ahosgabe baten ondoren (bare - ßare). Erantzunak jaso diren bezala agertzen baitira erantzundegian, irakurleak Interneteko argitalpena jo beharko du, forma zein kontestutan bildu izan den jakiteko. Ohar horrek azentu kontuentzat ere balio izan dezake; izan ere, erantzundegian agertzen den erantzuna testuinguru batean emana izan da, eta testuinguru horrek eragina izan dezake azentuan.

Bestalde, erantzunaren aldaera bat baino gehiago bildu izan denean, bildu diren guztiak ezarri dira erantzundegian, azentu desberdintasuna salbu. Horrela, irakurleak 20010 galderan, adibidez, Sohütan erantzunaren bi aldaera elkarren ondoan kausituko ditu: [boštá] eta [bó:šta], bigarrenak iraupen luzeagoko bokala duelarik. Gerta daiteke ere, ebakera erlaxatua duten aldaerak ere biltzea; 20040 galderan, Deban, [arántsa] eta [arántsa] aldaerak bildu dira. Bestelakorik ere bildu da, hala nola hitz beraren hiru aldaera bildu dira Jaurrietan [mátsosa], [matšótja] eta [masósa], 20020 galderan.